

(3)

X A L U P A  
=====

Xalupa bat, xalupa bi, xalupa bost.... hamaika!

Bai, bai, esan zuen Mikelek, abestiak hori esaten du, baina oraindik lehenengotik ez gara pasa, non ote da bigarren xalupa?

Mikelek ez dakiena zera da: alegia, xalupa gehienak gora-behera handiak igaro behar dituztela kai batetik bestera joateko. Horrelako zerbait gertatu zaio gure bigarren xalupa honi ere. Ez dakizu asko Mikel, non ibili den Xalupa hau!

Jakitea nahiko zenukela uste dut eta horregatik esan go dizut zerbait.

Gure Xalupa urruti urrutian ibili da; ez dut esango in dietaraino joan denik, baina bai urrutira joan dela, Mikel. Era guztietako kaiak ikusi ditu eta denetan egin du egonalditxo bat. Esan didanez, batoren batean egonalditxo bat baino zerbait ge- niago egitea gustatuko zitzaiokeela, baina ezin, beste toki ba tzuk ere ikusi beharra zedukan eta.

Ez pentsa Mikel ikastolako lagunak ahastu dituenik, bai zere! Oraingo Xalupak berri asko dakar; abentura askoren jabe egin da eta denak zueri kontatzeko prest dago. Xalupak esan dit, itsasoz--itsaso ibili den honetan gauza asko ikusi dituela. Kome ria xelebre batzuek izan omen ditu bidean, baina tira!... Euro- pa hotzari aurka egiteko prest dagoela esan digu. Rusia aldean

neguak aurpegi beltza agertu omen duela; izan ere, Mikel, ne-  
guan sartu gara eta hori jakiteko ez dago Rusiaraino joan be-  
rrik, etxekoa ikustearekin aski bait dugu.


Gehiago zer? A, bai! Oriente aldean ere izan omen da,  
eta hiru Erregeak ere jarri omen dira bidean. Euren azkene-  
ko aldiz egon zenean aurtengo ibilaldia eta sari banaketa gan-  
boluz ala hegazkinez egin ari omen ziren eztabaidatzen. Hori  
da gutienekoa, nolana ere bidean ditugu behintzat. Eta, Mi-  
kel, Erregeekin batera ere Gabonak gainean ditugula ba ahal-  
dakizu? Behar bada, horregatik azaldu da Xalupa bera ere, be-  
rriro, gurekin; izan ere zer dute, Mikel, egun hauek hain go-  
xo eta atseginak izateko? Bedirudi guztiok alaiago ibiltzen  
garela, Mikel.

A, ia ahaztu zitzaidan esatea: beste gizon ospetsu ba-  
tzuk ere ikusi omen ditu gure Xalupak, hor zehar. Mallorca-n  
gertatua da politena, Mikel. Hantxe. Mallorca-ko kaiean ze-  
goela nor ikusiko eta Olentzero alajaina. Harixe bostekorik  
eman gabe ezin etorri behintzat. Hura ere bidean jarria omen  
da Euskal Herrira bidean eta hemen ikusten direnean elkarre-  
kin gaztain batzuk jateko hitzemandu omen daude. Baina zu, Mi-  
kel, ez zara gaztainekin konformatuko noski; zenbat turroi-  
jan behar duzu, Mikel? Kontuz gero!, e?; baina nolana ere  
zenbat turroi jan duzun eta Gabonak nola igaro dituzun esan-  
go didazu hurrengo Xalupan. ONDO IGARO GABONAK

(4)

### Lehenengo maila

Egun batean enara bat joan  
Zen xomorroak jatera eta  
besteak joan ziren Afrikara,  
Euskal Herrian hotza egiten  
Zuelako eta horrela amaitzen  
da ipuin hau.



(5)

## Ipuina

Behin batean bizi ziren aita eta ama bere umearekin, etxe polit batean.

Amak esan zion Amaiari:

- Amaia, joan zaitez dendara eta erosi porruak.


Amaiak erantzun zion:

- Ni ez noa

Orduan, amak esan zion:

- Ba, zu etxean egongo zara bakarrik eta ni joango naiz dendara. Gero aitari esango diot eta ez dizut gozokirik ekarriko.

Arantxa Beitia



Iraki Kortabitarte

(6)

## Bigarren maila

### TXAKUR POLITA

Gaur txakur bat ikusi dut. Errena zegoen, oso oliki zebilen. Txakur horrek Jai zuen izena. Jaik ematen zuen zaharra zela. Gaur ikastola aurrean zegoen. Denok geunden begira nola zebilen erreka. Denok esaten genuen: nereca bazen etxera eroango genuela.

Alesander Arrieta

### TXORITXOA

Egun baten zen txoti polit bat. Baina ez hain beste. Ikusi zuen beste txobitxo bat bera bezalakoa. Esan zion beste txoritxoak:

- Zergatik zaude triste?. Zuri zer ardura dizu?

Eta txoritxoak lagunak izan ziren. Biak kaiola bat bilatu zuten. Gaur etorri zenean biak lotara joan ziren. Goiza etorri zenean biak jaiki eta kanpora joan ziren. Eguzki ederra zegoen...

Antonio Mari Arizmendi

(7)

Ikusi-mikusi: Zer ikusi? Patzikinek "Planeta Azul"-en

ikusten du:

К а т н а

G a m e l o a

Т х а к и р л а

К а м г м р а а

Л е р а л м з е а

К а т а д о л л и ' a

Т л ' г з е a

### Bizikleta berria

Behin batean etxe batean bizi zen mutiko bat Patxi zuela izena. Egun hartan amak bizikleta berria erosi zion. Gero bizikletarekin etxeari bueltak ematen hasi zen. Lehenengo buelta eman zuen eta esan zion Patxik amari:

- Begira, hanka bat gabe!

Beste buelta bat eman zuen eta esan zion:

- Ama, hanka bat eta esku bat gabe!

Beste buelta bat eman zuen eta esan zion:

- Ama, begira, hanka bat gabe eta eskurik gabe!

Beste buelta bat eman zuen eta esan zion amari:


- Ama, ezer gabe!

Eta beste buelta bat eman zuen eta

jausi egin zen, eta esan zion:

- Ama, haginik gabe!

Ruben Arozena



8

### Joxe Luis haserre

Joxe Luis, gure maisua, haserre egoten zen. Atzo gure Joxe Luis oso haserre egon zen, nerekin ere haserretu egin zen. Nerbioso zegoen.

Eduarne Bilbao


Atzo gu oso gaizki portatu ginen. Joxe Luis haserretu egin zen eta zutik egon ginen errekreoko ordurarte.

Errekreoko orduan lana egin genuen. Joxe Luisek bati matrailako bat eman zion, beste bat belauriko egon zen piska batean.

Gero numeroak esan genituen, lehenengo binaka eta gero hirunakako saltoekin.

Gero etxera joan ginen.

Maite Zolozabal



Nerea Galandor

9

Hirugarren maila

XALUPA

Behin batean, ni Debatik itsasontzi batean pasaiatze-  
ra irten nintzen, nere itsasontzi ttipian.

Gero Elgoibarrera iritxi nintzenean mutil bat ikusi  
nuen hibaian. Ez zekien igaritan eta berak esaten zuen: "soko  
rro, sokorro...". eta nik atera eta nere itsasontzian sartu  
nuen.

Gero berak esan zidan baloia erori zitzaiola eta baloi  
atzetik saltatu zuela hibaiera.

Piska bat lasaitu zenean, nik esan nion egoteko itsa  
ontzian, baloia nik hartuko nuela eta. Berak baietz erantzun  
zidan.

Baloia hartuta gero, galdetu nion non ikasten zuen eta  
erantzun zidan ikastolan zebilela.

Hibai ertzerara etorri ginenean, etxera joateko esan ni-  
on eta agur bero bat eman nion, eta berak ere agur berbera eman  
zidan.

Anabel Arrizabalaga

ZUHATZARI ESKUTITZA

Zuhaitz, itsusia zara, eta ez dugu nahi zurekin jola--

sean itsusia zarelako. Polita izan bazina, ibiliko ginateke.  
Baina itsusia zara. Ba ahal dakizu itsusia zarela?

Ni zu baino politagoa naiz. Ni ikastolan nabil, eta zu  
ez zabilta itsusia zarelako. Gure ikastolan denak politik di-  
ra eta gainera itsusiei errietan egiten diegu. Zuk ez duzu ba-  
lio gure ikastolarako.

Agur, zuhaitz itsusia.

Goñi'tar Itziar

Laugarren maila

BI AINGERU BELTZ

Behin batez, zeruan ikastola bat zegoen eta aingeruen  
ikastola zen. Ikastola hartan bi aingeru oso txarrak ziren bai-  
na oso listoak.

Egun batean, bi aingeruak, errekreoan zebiltzela urru  
tira joan ziren eta ideia bat asmatu zuten.

- Etorri, etorri. Ideia bat dut. Begira, begira;  
ikusten ahal duzu horko harri hori?

- Bai

- Ba, begira, tranpa bat hasiko gara egiten.

- Eta zer tranpa da?

- Txu,txu,txi,txu,txu.....

Hasi ziren egiten eta amaitu zutenean...

- Beno, hau ondo dago.

- Bai, oso ondo; txalo, txalo!

Baina tranpa bota egin zuten... UUUUU...

- Tranpa guztia gaizki irten da.

- Bai, badakit.

Eta Jesusek, nola dena ikusi zuen, kolorinetako ileak ipini zizkien bi aingeruei.

- Ikusten nago hobe dugula gehiago ez txarrak eta ez listuak izatea.

Patrizia Arrillaga



Agustine  
Aziazu

(12)

Boskarren maila

GABONAK

Gu ikastolara joaten gara, eta pozik ibiltzen gara ikastolan, baina gustorago Gabonetan oporrrak hartzen ditugunean.

Gabonak asko gustatzen zaizkit. Baserrira joan eta han elkartzen gara sendi guztia; eta baserrian elurra egiten duenean kanpora irten eta elurra botatzen ibiltzen gara.

Joan ziren Gabonak oso pozik igaro nituen nere baserrian. Gogoratzen naiz zela gau batean nere osabak elur zati bat hartu eta izebari kolkora bota ziola. Eta beste batean zela nere osaba logelara joan eta amamaren soinoko bat jantzi eta agertu zen sukaldara.

Baita ere gustatzen zaizkit Gabonak, erregeak ere Gabonetan etortzen direlako. Badakit erregeak aita eta ama direla, baina hala eta guztiz ere errege egunean poz pozik egoten naiz goiza noiz etorriko.


Gabonetan gure etxean jaiotza eta zuhaitza

(13)

ere dena apaindurik jartzen ditugu; eta ikastolan ere apaingarriak ipintzen ditugu, ikastola txukun duz, mahaiak garbituz eta abar.

Gabonak laster dira eta ni oso pozik nago.

Miren Amaya Larrañaga



Seigarren maila

### OILASKOA ETA GABONAK

Oilaskoa eta Gabonak bi adiskide ziren. Baina batzutan biok hizketan hasi eta haserretu egiten ziren.

Gabon eguna ailegatu zen eta, oilaskoak esan zuen: - Zu, Gabon, zoaz hemendik bizkor jan egingo naute bestela eta.

Bainan Gabonak farrez hasi zen,

(14)

- Zer uste duzu, haragitegian iolaskorik ez dutela saltzen ala?

- Bai, badakit saltzen dutela, bainan ikusten nautenean ikaraturik geldituko dira.

Abenduaren 24 gn eguna ailegatu zen eta, Gabonak oso pozik zegoen, oilaskoa, berriz, beldurtuta.

- Hau da gauza ederra, 24ean denak poz pozik egoten dira turroia janaz, txanpaina edanaz eta abesti ederrak abestuz, gainera, -esan zion Gabonak.

- Badakit!, crantzun zion oilaskoak. Frigorifikoan sartuko naiz eta ez nau inork ikusiko.

- Frigorifikoaren hotza aguantatuko duzula uste ahal duzu?, eta, gainera, frigorifikoa dena janariz beteta egongo da eta mahaira ateratzen dutenean janaria zeu ere tartean izango zara.

- Ni ez naiz hain tontoa -esan zuen oilaskoak.

3lan gaueko afaria egin behar zuen familia batek eta andrea frigorifikora joan zen, bainan gertatzen zena zen etxeko andreak ere oilasko bat erosi zuela afaria egiteko eta konfundituta gure oilaskoa eraman zuen mahaire eta denek hasi ziren jaten.

Orduan Gabonak esan zuen:

- Tontoa izatearren gertatu zaizu.

(15)

Myrian Iriondo

## TURROIA ETA TXANPAINA

Negua; elurra goitik behera; amona sutondoan katua bere ondoan duela; umeak errogeak ekarri dituzten gauzekin pozez zorutzen jolasean. Etxea oso ixilik dago; denak mezetara joan dira, afaria mahai gainean lagata. Mahaiaren ordian bi gauza oderrenak daude: turroia eta txanpaina.


Familia etxetik irten arte oso ixilik egon dira, baina orain... Jesus, Jesus!.... Zoro etxe bat ematen du. Entzun zer **esaten** duten beren artean:

- Ni baino janari gozoagorik ez dago ludi gutxian. Ez, ez dago; konbenzituta nago. Bai, ni naiz onena -esaten du turroiak.

- Zu, bai, oso gozoa zarrela esaten dute, baina ez dut uste ni hainakoa zaronik - esaten du txanpainak - ni gehiago maite naute gizonek.

- Zu, gizonak, baina ni familia guztiak.

- Ez, ni gehiago maite naute.



- Ez, ni

- Ez, zu ez, ni

-- Zuk nahi duzuna esango didazu, baina ni naiz hemen gohien maite dena.

Kanpaiak jo zituzten eliza nagusian eta laister atea iriki zuten. Familia etxean sartzen denean bukatzen da turroia eta txanpainaren arteko diskuzioa.

Anama, herriz, sutondoan jarri da eta umeak jolasean hasi dira; elurra goitik behera hasi da berriez eta etxea argiz bete da.

Hamaikak jo dute, afaltzen hasi dira. Postrea ailogatu da eta bai turroia eta bai txanpaina jan dituzte eta familiak esaten du:

- Bai gozoak zeudela turroia eta txanpaina. Ez dakit zein jango nukeen gustoago.

Agurtzane Azpiazu



IPUINA

PERU ETA IZURDEA

Peru Getariako mutiltxo bat zen eta itsas-ondoko horri honetan jaioa zenez, asko gustatzen zitzaion itsasoa. Luzaro egoten zen itsasoari begira eta begira; eta hori bakarrik ez, sarritan joaten zen bere aitona Piarresekin arrantzara beren kalupa motorduna hartuta. Etxeratzen zirenean oso pozik etortzen zen Peru arrainez bototako saski hura eskutetan zeula.

- Ama, ama, begira zenbat arrain; aitonak eta biok harrapatu ditugu.

- Ondo da, Peru; gaurko afaria badugu behintzat.

Aitonak ere pozez begiratzen zion bere iloba Perutzori eta horrela esaten zuen berekiko:

- "Bihar edo etzi arrantzale jator bat izanen duk gure Peru".

Bahin batean, arratsaldeoro bezala, irten ziren itsasora Peru eta bere aitona, eta lurretik piska bat urrutiratu zirenean arrainak harrapatzen hasi ziren.

- Ea, aitona, nork gehiago harrapatu.

- Zaude ixilik eta begira ondo.

Handik ordubete batetara balantza haundi xamar

(18)

bat egin zuen kalupak.

- Zer izan da hori, aitona?

- Ez dakit, baina arrain bat izango zen.

Eta aitonak begiak luzatu zituenean izurde bat ikusi zuen beren kalupatik gertu. Aitonak, ez bait zuen behin ere izurderik ikusi, beldur hartu zuen, ez izurdeagatik bakarrik bere iloba Peru ere arriskuan ikusten zuelako baizik. Eta berehala motorre martxan ipini eta :

- Goazen, Peru, goazen -esan zuen

- Baina, aitona, zergatik? Horrek ez digu kalterik ogingo eta beharbada gure laguntzaren beharrean aurkituko da.

- Ez, Peru, ez. Hobe dugu lehen bait lehen joatea

Eta horrela aldendu ziren.

Peruk gau hartan ez zuen lo askorik egin; izurde harekin pentsatzen joan zitzaion gaua hurrengo goizean zerbait egiteko asmoa ere hartu zuen.

Hurrengo goizean, gosalduta bezain laster, esan zion amari:

- Ama, kalera noa.

- Ondo da, Peru. Txintxo etorri bazkaritarako, e?

Hala joan zen kalera Peru eta segidan kaira

(19)

joan zen eta han itsasoari begira jarri zen.


- Non ote da atzoko izurdea, pentsatzen zuen. Eta gaiztoa ote da?; zergatik ez da, ba, nere laguna izan go? ... Badakit zer egin.

Eta irrifar bat loratu zen bere ezpainetan.

- Bai, horixe egingo dut.

Ez zen txantxetako gauza Peruk pentsatu zuena. Izurdea Gatariako kaira ekartzea pentsatu zuen eta hau egin ezean ez zen etxera azalduko. Baina ixilik eta izkutuan ibili behar zuen; ez zedila inor kontura. Poliki poliki xaluparuntz hasi zen joaten, baina bere ama balkoian zegoen erropak zabaltzen eta hark ikusteko beldur zen. Baina halako batetan, ama ezkutatu zenean, sartu zen xalupara eta rruuummmmm ! eman zion motorrari. Handik piska batera xalupa bat guttiago zen Gatiariako kaian eta bat gehiago itsaso zabalean. Peru izurdearen bila atera zen.

(jarraituko du)



(20)

## Tristeak

Erromako merkatu batetan, gizon batek txakur bat erosi nahi zuen, eta saltzaileari galdere hau egin zion: - Aizu, txakur hori zintzoa ahal da?

- Bai horixe! Honuzkero lau bider saldu dut, eta guztietan etxera etorri zait berriro.

Arrats batetan, Iruineko kale batetik mozkortiti bat zebilen. Halako batean neska bat pasatu zen haren ondotik. Neska hura, egia esateko, ez zen oso polita, eta mozkortiak, ikustean, honela osen zion:

- Itsusia!

Neskak, biziki minduta, buelta egin eta haserre bizian:

- Mozkortiti halakoa!

- A! -erantzun zion mozkortiak-, baina neri pasatu egingo zait, eta zuri ez!



ABESTIAK

Hasiko naiz

Hasiko naiz albiste hau,  
pekataria, esaten:  
zergatik dagoen Jaungoikoa  
Haurtzo ixilik Belenen.  
Behin batean xingurri bat  
harroska zebilen Edenan:  
haundigorik nor da hemen?  
Ja, ja, ja, ja, ja, ja, ja.

Olentzero

Olentzero joan zaigu  
mondira lanera,  
intentzioarekin ikatz egi<sup>tera.</sup>  
Aditu duenian Jesus jaio  
dela, laisterka etorri  
da  
berri ematera.  
Horra, horra....

Ator, ator

Ator, ator, mutil etzera  
gaitainak zimelak jatera,  
Gabon gaua ospatutzeko  
aitaren ta amaren ondoan,  
ikusiko duk aita barrezka,  
amaren poza atseginez.  
Eragiak, mutal, sarreko  
gaitainak erre artean,  
azalak lehertu artean,  
xipli, xapla, plum...  
Gabon gaua pozik igaro daigun.

Behin batez

Behin batez izar bat  
zen oso jostalari  
jauzika, salteka,  
Belenera etorri.  
Nor ote dugu berori?  
Josutxo da hori.  
Potxolo, moxolo,  
egin zazu, ba, lolo.